



Eusko Jurlaritzaren  
Informatika Elkarte

Sociedad Informática  
del Gobierno Vasco

# Erabiltzailearen eskuliburua

1.0 bertsioa

2018ko otsailak 19

## **AB03B- Amianto-arriskua duten lan-planak baimentzea**

Dokumentu hau EJIE Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartearen jabetzakoa da, eta bertako edukia KONFIDENTZIALA da. Ezin da osorik edo zatika kopia, beste batzuei erakutsi, edo sortu zenerako helburuetatik at dauden bestelako helburuekin erabili, EJIEk lehenago idatzizko baimenik eman gabe. Kontratu baten araupean entregatzen bada agiri hau, kontratu horrek berariaz adierazten duen moduan erabili beharko da, eta ezingo da erabilera-esparru horretatik irten. EJIEk ez du erantzukizunik, dokumentuaren edizioan erroreak edo hutsuneak baleude.

Dokumentu hau sortzeko erabilitako txantiloia honako Campo de usuario Plantilla = lizentziapean lizentziatu da:



[ARINbide](#) by [EJIE](#) is licensed under a [Creative Commons Reconocimiento-NoComercial-CompartirIgual 3.0 Unported License](#).

Bertsioa	Data	Aldaketen laburpena	Egilea:	Nork onartua:
1.0	2018/02/19	Lehenengo bertsioa		

## Edukia

<b>1 Sarrera .....</b>	<b>5</b>
1.1 Sistemaren helburuak .....	5
1.2 Funtzioak .....	5
1.3 Hasiera .....	6
<b>2 Pantailaren antolaketa .....</b>	<b>7</b>
2.1 Goiburua .....	7
2.2 Lan-ingurunea .....	8
2.2.1 Menuak .....	8
2.2.2 Erabiltzailearen identifikazioa eta nabigazio-ibilbidea .....	8
2.2.3 Datuak eta edukiak .....	9
2.3 Orri-oina .....	9
<b>3 Sarrera-erretilua .....</b>	<b>10</b>
<b>4 Espedienteak .....</b>	<b>16</b>
4.1 Espedienteak bilatzea .....	16
4.1.1 Espedientearen datuak .....	24
4.1.2 Enpresaren datuak .....	27
4.1.3 Izapideak .....	30
5.1.1.1.1 Eskaera jasotzea eta aztertzea .....	33
5.1.1.1.2 Zuzentzeko errekerimendua .....	33
5.1.1.1.3 Ebazpena .....	37
5.1.1.1.4 Gora jotzeko errekurtsio baten ebazpena .....	45
5.1.1.1.5 Txostenak aurkeztea .....	47
5.1.1.1.6 Atzera egitea .....	49
5.1.1.1.7 Osalanen datuen erlaitza .....	51
5.1.1.1.8 Espedientea ixtea .....	55
5.1.1.1.9 Oniritzia .....	56
7.1 Espedienteak ixtea .....	62
<b>8 Mantentze-lanak .....</b>	<b>63</b>
8.1 Karguen mantentze-lanak .....	63
8.2 Sinatzaileen mantentze-lanak .....	66
8.3 Txantiloiaren mantentze-lanak .....	69
8.4 Erakundearen mantentze-lanak .....	73
8.5 Material moten mantentze-lanak .....	75
8.6 Dokumentu moten mantentze-lanak .....	78
8.7 Lan moten mantentze-lanak .....	81
8.8 Jarduera moten mantentze-lanak .....	84
8.9 Jarduera azpimoten mantentze-lanak .....	87

<b>9 Estatistikak.....</b>	<b>91</b>
9.1 Legebiltzarreko kontuetarako estatistikak.....	91
9.2 Estatistikak Segurtasuneko eta Higieneko Espainiako Instituturako .....	95
9.3 Pertzepzio-adierazleak .....	101

# 1 Sarrera

## 1.1 Sistemaren helburuak

Amianto-arriskua duten lan-planen baimenak kudeatzeko aplikazioa (Eusko Jaurlaritzan eskatzen dira lan-plan horiek).

Bi zati ditu: batetik, lurralde-ordezkaritzetako erabiltzaileei eta Osalaneko zein Lan Ikuskaritzako teknikariei zerbitzu ematen dien intraneteko modulua eta, bestetik, Interneteko modulua, enpresek erabil dezaketena izapideak modu telematikoa egiteko.

Intraneteko moduluak hainbat aukera eskaintzen ditu: sarrera-erretilua kudeatzea modu telematikoa erregistratzen diren izapide guztiekin, espedienteak kontsultatzea, Osalaneko edo Lan Ikuskaritzak txostena atxikitzea, beharrezkoa den kasuetan zuzentzeko errekerimenduak sortzea, edota enpresei helarazteko azken ebazpenaren txostena prestatzea.

Enpresari egindako komunikazio guztiak bide telematikoz egiten dira, «Nire kudeaketak» atalaren bidez, eta atxikitako dokumentuak sinagailuan sinatzen dira.

Era berean, estatistiken modulu bat ere badu, ezartzen diren zerrendak sortzeko.

Hainbat erabiltzaile-profil existitzen dira.

- Enpleguko lurralde-ordezkaritzetako teknikariak.
- Osalaneko ikuskatzaileak.
- Lan Ikuskatzailatzako teknikariak.

Amianto-arriskudun lan-planak baimentzeko eskabideak eta gainerako izapideak bide telematikoz bakarrik eska daitezke, horretarako formularioen toolkitean apropos prestatutako formularioen bidez.

Eskatzaileek online kontsultatu ahal izango dituzte espedienteak, «Nire kudeaketak» atalaren bidez.

## 1.2 Funtzioak

Hainbat erabiltzaile-profil existitzen dira.

- Lurralde historiko bakoitzean Lan eta Justizia Sailak dauzkan lurralde-ordezkaritzetako teknikariak.
- Osalaneko ikuskatzaileak.
- Lan Ikuskatzailatzako teknikariak.
- Enpresak.

## 1.3 Hasiera

Aplikazioan sartzen diren erabiltzaileek XLNEts sisteman egiaztatu beharko dute, baldin eta haien erabiltzaile-taldearekin edo -taldeekin lotutako baimenak badauzkate.

Erabiltzailea baliozkotu ondoren, aplikazioaren orri nagusia agertuko da.

Amianto-arriskua duten lan-planak  
baimentzea

Lan eta Justizia Saila



es | eu

[Launtza](#) [Harremana](#)

[Hasiera](#)

[Sarrera-erretilua](#)

[Espedienteak](#)

[Mantentze-lanak](#)

[Estatistikak](#)

AB03B-03, Responsable Deleg, Alava dago: **Hasiera**

[Saltoa itxi](#)

### Amianto-arriskua duten lan-planak baimentzea

[Legezko abisua](#) [Pribatutasuna](#)

© 2017 Eusko Jaurilaritza-Gobierno Vasco


Aplikazioa elebiduna da; euskaraz nahiz gaztelaniaz erabil daiteke.

## 2 Pantailaren antolaketa

Honako pantaila-argazki honetan, aplikazioaren pantaila guztiek zer egitura duten ageri da.

Guztiek ere goiburua, lan-ingurunea eta orri-oina dituzte.

Lan eremuaren barruan, honako hauek ageri dira: menuak, erabiltzailearen identifikazioa eta nabigazio-ibilbidea, eta pantaila bakoitzeko datuak eta edukia.



Amianto-arriskua duten lan-planak baimentzea

CABECERA

Lan eta Justizia Saila

es | eu

Hasiera | Sarrera-erretilua | Espedienteak | Mantentze-lanak | Estatistikak

AB03B-03, Responsable Deleg. Alava dago: [Hasiera](#) | [Espedienteak](#) | [Espedienteen bilaketa](#)

AREA DE TRABAJO

[Saila](#) [Saila](#)

Espedienteen bilaketa

BILAKETA-IRAGAZKIA

Espediente-zenbakia: 01 /

Erregistro-zenbakia:

Erregistro-data: -

Itoita dauden espedienteak: ☒ Zehapen-espedienteak: ☐

ENPRESAREN DATUAK (Erakutsi/Erakutsatu)

ESKATZAILAREN DATUAK (Erakutsi/Erakutsatu)

LANAREN TOKIA (Erakutsi/Erakutsatu)

LANAREN IRAUPENA (Erakutsi/Erakutsatu)

IZAPIDETZEAREN EGOERA (Erakutsi/Erakutsatu)

Tragatzi [Gehitu](#)

Tratamenduak

Espedientea	Erregistro-data	IFZ/IFK	Enpresaren izena	Lanaren L.H.	Lanaren udalerrita	Lanaren hasiera-data	Fasea	Izapidea
Ez dago erregistratuta.								

[Lehenetara](#) [Hurrengo](#)

PIE DE PAGINA

© 2017 Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea

### 2.1 Goiburua

Sartu garen aplikazioaren izenburua agertzen da, eta aplikazio hori zer saili dagokion ere bai.



Amianto-arriskua duten lan-planak baimentzea

Lan eta Justizia Saila

es | eu

Hasiera | Sarrera-erretilua | Espedienteak | Mantentze-lanak | Estatistikak

AB03B-03, Responsable Deleg. Alava dago: [Hasiera](#) | [Espedienteak](#) | [Espedienteen bilaketa](#)

AREA DE TRABAJO

[Saila](#) [Saila](#)

Espedienteen bilaketa

BILAKETA-IRAGAZKIA

Espediente-zenbakia: 01 /

Erregistro-zenbakia:

Erregistro-data: -

Itoita dauden espedienteak: ☒ Zehapen-espedienteak: ☐

ENPRESAREN DATUAK (Erakutsi/Erakutsatu)

ESKATZAILAREN DATUAK (Erakutsi/Erakutsatu)

LANAREN TOKIA (Erakutsi/Erakutsatu)

LANAREN IRAUPENA (Erakutsi/Erakutsatu)

IZAPIDETZEAREN EGOERA (Erakutsi/Erakutsatu)

Tragatzi [Gehitu](#)

Tratamenduak

Espedientea	Erregistro-data	IFZ/IFK	Enpresaren izena	Lanaren L.H.	Lanaren udalerrita	Lanaren hasiera-data	Fasea	Izapidea
Ez dago erregistratuta.								

[Lehenetara](#) [Hurrengo](#)

PIE DE PAGINA

© 2017 Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea

Horrez gain, goiburuan hizkuntza ere aldatu dezakegu. Horretarako, segun eta zer hizkuntzatan nabigatu nahi dugun, botoi hari eman beharko diogu.

es | [eu](#)


Goiburuan, era berean, laguntza eskuratzeko estekak topatuko ditugu. Estekaren gainean sakatuta, erabiltzailearen eskuliburua deskargatu ahal izango dugu PDF formatuan. Harremanetarako atalean sakatuta, berriz, posta elektronikoko gisa konfiguratutako aplikazioa irekiko zaigu, harremanetarako pertsona hartzaile gisa ipinita.

[Laguntza](#) [Harremana](#)

## 2.2 Lan-ingurunea

Lan-inguruneak hiru eremu ditu.

- Menuak
- Erabiltzailearen identifikazioa eta nabigazio-ibilbidea
- Datuak eta edukiak



### 2.2.1 Menuak

Menuen barratik, aplikazioaren funtzionalitate guztietan nabigatu ahal izango dugu.



Menuaren aukeraren gainean sakatzean, funtzionalitatera sartuko gara (azpimarratutako esteketan), edota beste menu bat agertuko zaigu aukera gehiagorekin (gezi bat daukaten estekak).




### 2.2.2 Erabiltzailearen identifikazioa eta nabigazio-ibilbidea

Menuaren azpian, aplikaziora sartzean benetakotzat egiaztatutako erabiltzailearen datuak ikusiko ditugu.



Horrez gain, erabiltzailea aplikazioaren zer tokitan dagoen azalduko da une oro. Bide hori ordezkotako nabigazio-aukera gisa ere baliatu daiteke. Sagua gainetik pasatzean, menuaren aukerak zabalduko dira.





### 2.2.3 Datuak eta edukiak

BILAKETA-IRAGAZKIA

Espediente-zenbakia: 01 /

Erregistro-zenbakia:

Erregistro-data:

☒ Ibita dauden espedienteak
 ☐ Zehapen-espedienteak

EMPRESAREN DATUAK (Erakutsi/Erakutsatu)

ESKATZAILEAREN DATUAK (Erakutsi/Erakutsatu)

LANAREN TOKIA (Erakutsi/Erakutsatu)

LANAREN IRAUPENA (Erakutsi/Erakutsatu)

IZAPIDETZEAREN EGOERA (Erakutsi/Erakutsatu)

Irakazi

arbitu

Espedientea

Erregistro-data

IFZ/IFK

Enpresaren izena

Lanaren L.H.

Lanaren udalortia

Lanaren hasiera-data

Fasea

Izapidea

Ez dago erregistratuta.

Txostenak

Aplikazioaren lan-eremua da, eta, bertan, sartzen garen modulu bakoitzari buruzko datuak agertuko zaizkigu.

## 2.3 Orri-oina

Orri-oinean, **Lege-oharra** edo **Pribatutasuna** estekei emanez gero, erabiltzailea Eusko Jaurlaritzaren orri batera bidaliko da; bertan, jabetza intelektualari, datu pertsonalen pribatutasunari eta abarri buruzko lege-alderdien informazioa emango da.

### 3 Sarrera-erretilua

Modulu horretan, enpresek telematikoki egindako eskabide guztiak agertuko dira, eta teknikariei prozesatzeko aukera emango die, sistemaren zati izateko eta kudeatzeko modua egiteko.

Sarrera-erretilura hainbat eratako eskabide motak iristen dira.


- Amiantoa erabiltzeak eragindako arriskua duten lan-planak baimentzeko eskabideak.
- Dokumentazioa norbere borondatez aurkeztea (bide honetatik, IV. eta V. eranskinak eta hondakinak kudeatzeko txostena aurkezten dira, baita obra-hasierako eta obra-amaierako komunikazioak ere).
- Errekerimenduen zuzenketak.
- Gora jotzeko errekursoak.
- Atzera-egiteak.

Teknikariak eskabideari oniritzia emandakoan eta sistemaren zati izatera igarotzen denean, automatikoki espedienteak sortuko da «Nire kudeaketak» atalean, eskatzaileak kontsultatu ahal izan dezan.

Sarrera-erretilura sartzeko, goiko menutik jo behar da.




Sarrera-erretilura sartutakoan, iragazki bat agertuko zaigu bilaketak egiteko, baita taula bat ere, bilaketa horietan eskuratutako emaitzekin.



Pantaila horretan, erabiltzaileek bilaketak egin ahal izango dituzte, iragazkian agertzen den edozer eremu baliatuta. Iragazteko baliorik adierazi ezean, bilaketaren emaitza gisa espediente guztiak agertuko zaizkigu.

- Ekitaldia: eskabidea zer urteri dagokion.

- Espediente-zenbakia: lurrealde historikoa (2 digitu) / urtea (4 digitu) / espediente-zenbakia (5 digitu). Saioa hasi duen erabiltzailea ordezkari bat baldin bada, erabiltzaileari dagozkion lurrealde historikoaren bi digituak kargatuta agertuko dira. Aplikazioan sartu den erabiltzailea administratzailea edo Zerbitzu Zentraletako teknikaria baldin bada, lurrealde historikoa hutsik agertuko da. Erabiltzaileak bilatu nahi duen lurrealde historikoa sartu ahal izango du, edota hutsik utzi, hiru lurrealde historikoetan bilatzeko.
- Erregistro-zenbakia.
- Eskatzailearen IFK.
- Eskatzailearen sozietate-izena.
- Plan mota: espezifiko, generiko edo hurrengo.
- Erregistroaren data noiztik / noiz arte. Eskuz bete liteke, data uuuu/hh/ee formatua baliatuta edota egutegian data bat aukeratuta (📅 ikonoa sakatuta). Egutegian, hilabeteetan eta urteetan nabigatu egin daiteke aurrekoa eta hurrengoa geziak baliatuta, edota zerrenda zabalgarrietan nahi dugun hilabetea eta urtea aukeratuta.



- Eskaera zer fasetan dagoen.
- Eskabidea zer izapidetan dagoen.

Testu bat bilatzean, testu hori daukaten erregistro guztiak agertuko zaizkigu. Esate baterako, sozietate-izenaren iragazkian 'et' idatziz gero, sozietate-izenean karaktere-kate hori duten eskabide guztiak agertuko dira (**Retirada de Amianto SA**, adibidez).

Hasieran, iragazkia ikusteko moduan agertuko da, baina, erabiltzaileak ezkutatu egin nahi baldin badu, bilaketa-iragazkiaren barran sakatu beharko du erretiratzeko. Barra berriz emanez gero, iragazkia agertuko zaigu atzera.

Amianto-arriskua duten lan-planak baimentzea

Lan eta Justizia Salla

gg | eu

Hasiera | Sarrera-erretilua | Espedienteak | Mantentze-lanak | Estatistikak

AB03B-03, Responsable Deleg. Alava dago: [Hasiera](#) | [Sarrera-erretilua](#) | [Espediente telematikoen sarrera-erretilua](#)

Espeidiente telematikoen sarrera-erretilua

BILAKETA-IRAGAZKIA

☒ Saitu

Espedientea	Plana	Erregistro-zenbakia	Erregistro-data	IFZ/IFK	Enpresaren izena	Fasea	Izapidetza	Prozesatuta
Ez dago erregistratuta.								

Leaketa alorra, © - Erretiratuena, ©

© 2017 Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea

**Iragazi** botoiari ematean, azpiko taulan iragazkiko irizpideak betetzen dituzten eskabide guztiak kargatuko dira. Taula hori zenbakituta dago, eta eskabideak zutabe guztien arabera antola daitezke.

Amianto-arriskua duten lan-planak baimentzea Lan eta Justizia Saila

Hasiera | Sarrera-erretilua | Espedienteak | Mantentze-lanak | Estatistikak

Hemen zaude: Hasiera > Sarrera-erretilua > Espediente telematikoen sarrera-erretilua

Espediente telematikoen sarrera-erretilua

**BILAKETA-IRAGAZKIA**

Ekitaldia: \*\*\*

Espediente-zenbakia: 01 /  /  Erregistro-zenbakia:

IFZ/IFK:  Enpresaren izena:

Plan mota: \*\*\* Erregistro-data:  -

Fasea: \*\*\* Izapidea:

[Iragazi](#) [Garbitu](#)

Espedientea	Plana	Erregistro-zenbakia	Erregistro-data	IFZ/IFK	Enpresaren izena	Fasea	Izapidea	Prozesatu
01/2018/00008	OT	2018RTE00001766	2018/02/14	B50688597	Empresa RetirAman S.L	Eskara jasotzea eta aztertzea	Eskara telematikoa jasotzea	Prozesatu

1 - 1(0)ak 1 erakusten

Leakatu alorra: [Ez](#) [Baimentzeko](#)

© 2017 Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea

**(1)** irudian ikusten dugun moduan, taulak aplikaziora bide telematikoz iritsitako eskabideak erakusten ditu, oraindik prozesatzeko daudenak. Eskabide bakoitzeko, honako alderdi hauek agertuko dira.

- Espediente-zenbakia
- Plan mota: **E** plan espezifikotarako, **S** hurrengo planetarako, **GT** EAEn ebatzitako plan generikotarako eta **GE**, berriz, EAetik kanpo ebatzitako plan generikotarako.
- Sarrera-erregistroaren zenbakia
- Sarrera-erregistroaren data
- IFK/IFZ
- Sozietate-izena
- Espedientea zer fasetan dagoen
- Espedientea zer izapidetan dagoen
- **Prozesatu** botoia, teknikaria eskabidean sartu eta prozesatu ahal izateko. Hala, sistemaren zati izatera igaroko da.

Horrez gain, **Sartu** **(2)** botoiari ematean, enpresak bidalitako eskabidearen laburpena ikus daiteke, baita eskabideari atxikitako dokumentuak ere.

Amianto-arriskua duten lan-planak baimentzea

Lan eta Justizia Saila


Leakuntza e<sup>+</sup> Hartemena e<sup>+</sup>

AB03B-03, Responsable Deleg. Alava dagoi: [Hasiera](#) > [Sarrera-erretilua](#)


Sarrera-erregistroa: 2018/02/14 / 2018RTE00001766 Plan mota: Orokorra  
Espediente-zenbakia: 01/2018/00008 Eskatzailearen datuak: B50688597 - Empresa RetirAmian S.L  
Fasea: Eskara jasotzea eta aztertzea Izapidea: Eskara telematikoa jasotzea

[Itzuli](#)

**Aurkeztutako agiriak**

Lan-plana 

[Plan.pdf](#)


Amianto-arriskua duten lan-planak baimentzeko eskara 

[Solicitud.html](#)

[Leakuntza e<sup>+</sup>](#) [Hartemena e<sup>+</sup>](#)

© 2017 Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea

Dokumentu bakoitzaren izenari emanda, elkarriketa bat agertuko da, artxiboa gordetzeko edo irekitzeko.



**Itzuli** botoiari emanda, lehen azaldu dugun sarrera-erretilura joango gara berriz.

Era berean, sarrera-erretiluko bilaketan eskuratutako emaitzak Excel edo PDF artxibo batera esportatzeko aukera ere badugu, **Txostenak (3)** botoiari emanda.

Amianto-arriskua duten lan-planak baimentzea

Lan eta Justizia Saila

Leakuntza e<sup>+</sup> Hartemena e<sup>+</sup>

AB03B-03, Responsable Deleg. Alava dagoi: [Hasiera](#) > [Sarrera-erretilua](#)

[Sarrera-erregistroa](#) > [Eskara jasotzea eta aztertzea](#) > [Eskara telematikoa jasotzea](#)

**Espediente telematikoen sarrera-erretilua**

**BILAKETA IRAGAZKIA**

Eskatzaile:

Espediente-zenbakia: 01 /  /  Erregistro-zenbakia:

IFZ/IFK:  Enpresaren izena:

Plan mota:  Erregistro-data:  -

Fasea:  Izapidea:

[Itzuli](#) [Goratu](#)

☒ Sartu

Espedientea	Plana	Erregistro-zenbakia	Erregistro-data	IFZ/IFK	Enpresaren izena	Fasea	Izapidea
01/2018/00008	01	2018RTE00001766	2018/02/14	B50688597	Empresa RetirAmian S.L	Eskara jasotzea eta aztertzea	Eskara telematikoa jasotzea

[Leakuntza e<sup>+</sup>](#) [Hartemena e<sup>+</sup>](#)

© 2017 Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea

Eskabideari atxikitako dokumentuak bezalaxe, ohar bat irekiko da, erabiltzaileari galdetzeko txosten hori ireki edo gorde nahi duen.

Ondoren, txosten horien adibide bat erakutsiko da, bai Excel formatuan (XLS eta XLSX), bai PDF formatuan.

	A	B	C	D	E	F	G	H	I
1	Espediente	Plana	Erregistro-zenbakia	Erregistro-data	IFZ/IFK	Enpresaren izena	Fasea	Izapidea	
2	01/2018/00008	OT	2018RTE00001766	2018/02/14	B50688597	Empresa RetirAmian S.	Eskaera jasotzea eta aztertze	Eskaera telematikoa jasotzea	

Espediente telematikoen zerrenda

Espediente	Erregistro-zenbakia	Erregistro-data	IFZ/IFK	Enpresaren izena	Fasea	Izapidea
01/2018/00008	2018RTE00001766	2018/02/14	B50688597	Empresa RetirAmian S.L	Eskaera jasotzea eta aztertze	Eskaera telematikoa jasotzea

Aplikazioaren taula guztiek beheko aldean botoiak dituzte bilaketen emaitzetan nabigatu ahal izateko.

Lehenengo orrialdea	Aurrekoa	1 orrialdeak	Hurrengoa	Azken orrialdea	10	1 - 8(e)tik 8 erakusten
---------------------	----------	--------------	-----------	-----------------	----	-------------------------

Irudian ikusten den moduan, erdiko koadroan, taulak zenbat orri dituen ageri da. Orriz aldatzeko, zuzenean idatz dezakegu laukitxo horretan zer orritara joan nahi dugun, edota botoi hauek erabili: lehen orria, aurrekoa, hurrengoa edo azken orria.

Lehenetsita, 10 erregistro agertuko dira orri bakoitzean, baina aukera hori aldatu liteke menu zabalgarrian beste kopuru bat aukeratuta.

10

10

20

30

Azkenik, erabiltzaileak eskabide baten **Prozesatu** botoiari ematean, eskabidea aplikazioaren zati izatera igaroko da espediente bat sortuta, baldin eta alta-eskaera bazen; era berean, lehendik martxan dagoen espediente bati beste izapide bat ere gehitu ahal izango zaio (zuzenketa, atzera-egiteen edota gora jotzeko errekurso baten kasuan).

<a href="#">Acceder</a>								<a href="#">Informes</a>	
Expediente	Plan	Núm. Registro	F. Registro	CIF/NIF	Razón Social	Fase	Trámite		
01/2018/00010	GT	2018RTE00001864	16/02/2018	B50688597	Empresa de retirada de amianto	Recepción y análisis de la solicitud	Recepción de la solicitud telemática	<a href="#">Procesar</a>	
<div>Primera Página Anterior</div> <div>Página 1 de 1</div> <div>Siguiente Última Página 10</div>									
Mostrando 1 - 1 de 1									

[Aviso Legal](#) [Privacidad](#) © 2017 Eusko Jaurlaritzako Gobernuaren Baserria

Prozesatzeko botoiari ematean, aplikazioan jasotako espedientearen xehetasunak irekiko ditugu. Honako pantaila hau agertuko zaigu, eta haren funtzionamendua xehe-xehe dago azalduta honako puntu honetan:

#### 4. Espedienteak.

Amianto-arriskua duten lan-planak baimentzea

Lan eta Justizia Saila



es | eu

Leakuntza  Harremana [Hasiera](#) | [Sarrera-erregistroa](#) | [Espedienteak](#) | [Mantentze-lanak](#) | [Estatistikak](#)AB03B-03, Responsable Deleg. Alava dago: [Hasiera](#) [Sakoa.doc](#)**Esp: 01/2018/00008 Plan mota: Genérico**  

Sarrera-erregistroaren data: 2018/02/14 Sarrera-erregistroaren zenbakia: 2018RTE00001766

IFK/IFZ: B50688597 Enpresaren izena: CIUDADANO FICTICIO ACTIVO Aktiboa: Aktiboa

Fasea: Eskara jasotzea eta aztertzea Izapidea: Espedientea irekitzea Nire Kudeaketak atalean Egoera: Eginda

[Aurrekoa](#) [Itzuli](#)[Espedientearen datuak](#) [Enpresaren datuak](#) [Izapideak](#)[Gorde](#)**Eskatzailearen datuak**

Dokumentua: 999999905

Izena: CIUDADANO

1. Abizena: FICTICIO

2. Abizena: ACTIVO

Legezko Ordezkaria:

Zehapen-espedientea:

[Dokumentua Eranstea](#)

Espedienteari lotutako teknikaria:

Komunikazio-hizkuntza: ☒ Gastelaniaz ☐ Euskaraz**Txostenaren aurrebista**

Data:

[Dokumentua Eranstea](#)[Leakuntza abizua](#)  [Politikak](#) 

© 2017 Eusko Jaurlaritzaren Gobernua Vasco

## 4 Espedienteak

[Hasiera](#) | 
 [Sarrera-erretilua](#) | 
 **Espedienteak** | 
 [Mantentze-lanak](#) | 
 [Estatistikak](#)

Espedienteen bilaketa  
 Espedienteak itzea

Menuaren **Espedienteak** aukeratik, sisteman diren espedienteak kudeatzera joko dugu.

### 4.1 Espedienteak bilatzea

Espedienteak bilatzeko aukerara sartzean, pantaila bat agertuko zaigu bilaketa-iragazkiarekin eta bilaketaren emaitzak jasotzen dituen taularekin.

Iragazki horretan **Garbitu** botoia dago, iragazkia husteko eta zurian ipintzeko.

Amianto-arriskua duten lan-planak baimentzea
 Lan eta Justizia Saila

ES | EU
 Laguntza 
Harremana

[Hasiera](#) | 
 [Sarrera-erretilua](#) | 
 **Espedienteak** | 
 [Mantentze-lanak](#) | 
 [Estatistikak](#)

AB03B-03, Responsable Deleg. Alava dago: [Hasiera](#) | [Espedienteak](#) | [Espedienteen bilaketa](#)

[Seinatu](#)

**Espedienteen bilaketa**

**BILAKETA-IRAGAZKIA**

Espediente-zenbakia: 01 /  /   
 Erregistro-zenbakia:   
 Erregistro-data:  -   
 Itxita dauden espedienteak: ☒ Zehapen-espedienteak: ☐

ENPRESAREN DATUAK (Erakutsi/Ezkutatu)

ESKATZAILEAREN DATUAK (Erakutsi/Ezkutatu)

LANAREN TOKIA (Erakutsi/Ezkutatu)

LANAREN IRAUPENA (Erakutsi/Ezkutatu)

IZAPIDETZEAREN EGOERA (Erakutsi/Ezkutatu)

Iragazi **Garbitu**

☒ Sartu irapideetara
 Txostenak

Espediente	Erregistro-data	IFZ/IFK	Enpresaren izena	Lanaren L.H.	Lanaren udalerria	Lanaren hasiera-data	Fasea	Izapidea
01/2018/00001	2018/01/24	B01167147	IMPERMEABILIZACIONES ISFATEC, S.L.	Bizkaia	Mañaria	2018/01/24	Ebazpena	Ebazpena
01/2018/00002	2018/02/05	B50688597	CIUDADANO FICTICIO ACTIVO	Araba/Álava	Vitoria-Gasteiz	2018/01/02	Ebazpena	Ebazpena
01/2018/00003	2018/02/05	B50688597	CIUDADANO FICTICIO ACTIVO	Araba/Álava	Vitoria-Gasteiz	2018/02/14	Ebazpena	Ebazpena
01/2018/00004	2018/02/05	B50688597	CIUDADANO FICTICIO ACTIVO	Araba/Álava	Vitoria-Gasteiz	2018/02/14	Ebazpena	Ebazpena
01/2018/00005	2018/02/06	721946306	CIUDADANO FICTICIO ACTIVO	Araba/Álava	Amurrio	2018/02/07	Ebazpena	Ebazpena
01/2018/00006	2018/02/08	721946306	CIUDADANO FICTICIO ACTIVO	Araba/Álava	Amurrio	2018/02/07	Ebazpena	Ebazpena
01/2018/00007	2018/02/09	72727272F	razón ana			2018/02/06	Ebazpena	Ebazpena
01/2018/00008	2018/02/14	B50688597	CIUDADANO FICTICIO ACTIVO				Ebazpena	Ebazpena

Lehendakoa azalduko da: ☐ 1 orrialdetik ☐ Harremana: ☐ Azken azalduko da: ☐ 10

1 - 8(c)ak 8 erakusten

Lezardu alabara Erabiltzailearen

© 2017 Eusko Jaurlaritzaren Gobernua Vasco

Hasieran, iragazkiko eremu batzuk ezkutatuta agertuko zaizkigu, pantaila gehiegi ez kargatzeko. Erabiltzaileak datuak zabaltu edo ezkutatu ahal izango ditu, behar dituen heinean (**erakutsi/ezkutatu**). Ondoren, goiko iragazki bera agertuko zaigu, baina eskatzailearen datuak zabalduta direla.



Amianto-arriskua duten lan-planak  
baimentzea

Lan eta Justizia Saila



ES | EU

Launtza Harremana

[Hasiera](#) | [Sarrera-erretilua](#) | [Espedienteak](#) | [Mantentze-lanak](#) | [Estatistikak](#)
AB03B-03, Responsable Deleg. Alava dago: [Hasiera](#) | [Espedienteak](#) | **Espedienteen bilaketa**[Saioa itxi](#)

## Espedienteen bilaketa

**BILAKETA-IRAGAZKIA**

Espediente-zenbakia: 01 /  /

Erregistro-zenbakia:

Erregistro-data:  -

Itxita dauden espedienteak: ☒ Zehapen-espedienteak: ☐

**ENPRESAREN DATUAK (Erakutsi/Ezkutatu)**

IFZ/IFK:

Enpresaren izena:

Lurralde Historikoa:  Udalerria:

Kalea:  Zenbakia:  Solairua:  Letra:

PK:

**ESKATZAILEAREN DATUAK (Erakutsi/Ezkutatu)**

**LANAREN TOKIA (Erakutsi/Ezkutatu)**

**LANAREN IRAUPENA (Erakutsi/Ezkutatu)**

**IZAPIDETZEAREN EGOERA (Erakutsi/Ezkutatu)**

[Iragazi](#) [Garbitu](#)

[Sartu izapideetara](#) [Txostenak](#)


Espediente	Erregistro-dat	IFZ/IFK	Enpresaren izena	Lanaren L.H.	Lanaren udalerria	Lanaren hasier	Fasea	Izapidea
01/2018/00001	2018/01/24	B01167147	IMPERMEABILIZACIONES ISF	Bizkaia	Mañaria	2018/01/24	Ebazpena	Ebazpena
01/2018/00002	2018/02/05	B50688597	CIUDADANO FICTICIO ACTIVO				Ebazpena	Ebazpena
01/2018/00003	2018/02/05	B50688597	CIUDADANO FICTICIO ACTIVO	Araba/Alava	Vitoria-Gasteiz	2018/01/02	Eskara jasotzea eta aztertzea	Osalan txostenak jasotzea
01/2018/00004	2018/02/05	B50688597	CIUDADANO FICTICIO ACTIVO	Araba/Alava	Vitoria-Gasteiz	2018/02/14	Obra-amaieraren/obra-itxieraren	Obra-amaiera espedientearen erre
01/2018/00005	2018/02/06	72194630E	CIUDADANO FICTICIO ACTIVO				Ebazpena	Ebazpena
01/2018/00006	2018/02/08	72194630E	CIUDADANO FICTICIO ACTIVO	Araba/Alava	Amurrio	2018/02/07	Eskara jasotzea eta aztertzea	Espediente irekitzea Nire Kudea
01/2018/00007	2018/02/09	72727272F	razón ana			2018/02/06	Zuzenketa	Zuzentzeko Errekerimendua
01/2018/00008	2018/02/14	B50688597	CIUDADANO FICTICIO ACTIVO				Eskara jasotzea eta aztertzea	Espediente irekitzea Nire Kudea


Lehenengo orrialdea Aurrekoa | 1 orrialdek | Hurrengoa Azken orrialdea 10 1 - 8(e)tik 8 erakusten

[Legezko abisua](#) | [Pribatasuna](#)

© 2017 Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco


Espedienteen iragazkian honako eremu hauek agertuko zaizkigu.

- **Espediente-zenbakia:** lurralde historikoa (2 digitu) / urtea (4 digitu) / espediente-zenbakia (5 digitu).  
Saioa hasi duen erabiltzailea ordezkartza bat baldin bada, erabiltzaileari dagozkion lurralde historikoaren bi digituak kargatuta agertuko dira. Aplikazioan sartu den erabiltzailea administratzailea edo Zerbitzu Zentraletako teknikaria baldin bada, lurralde historikoa hutsik agertuko da. Erabiltzaileak bilatu nahi duen lurralde historikoa sartu ahal izango du, edota hutsik utzi, hiru lurralde historikoetan biltzeko.
- **Erregistro-zenbakia:** dokumentuaren sarrera-erregistroaren zenbakia.
- **Espedientearen erregistro-data** noiztik/noiz arte. Eskuz bete liteke, data uuuu/hh/ee formatua baliatuta edota egutegian data bat aukeratuta (  ikonoa sakatuta). Egutegian, hilabeteetan eta urteetan nabigatu egin daiteke aurrekoa eta hurrengoa geziak baliatuta, edota zerrenda zabalgarrietan nahi dugun hilabetea eta urtea aukeratuta.



- Itxitako espedienteak: aukera hori markatuz gero, irekita jarraitzen duten espedienteak zein itxita daudenak bilatuko dira.
- Zehapen-espedienteak: laukitxo horrek adierazten du zehapen-espediente bat daukaten espedienteak bilatuko dituela markatuta egonez gero, edota halakorik ez dutenak, markatu ezean.
- ENPRESAREN DATUAK.
  - o IFK/IFZ
  - o Sozietate-izena
  - o Probintzia/LH. Zerrenda zabalgarria, nahi dugun probintzia aukeratzeko.
  - o Udalerrria. Zerrenda zabalgarria, nahi dugun udalerrria aukeratzeko.
  - o Kalea
  - o Zenbakia
  - o Solairua
  - o Hizkia
  - o Posta-kodea
- ESKATZAILEAREN DATUAK.
  - o IFZ
  - o Izena
  - o 1. abizena
  - o 2. abizena
  - o Legezko ordezkariaren izena
- LANEN TOKIA
  - o Lurralde historikoa. Zerrenda zabalgarria, nahi dugun lurralde historikoa aukeratzeko.
  - o Udalerrria. Zerrenda zabalgarria, nahi dugun udalerrria aukeratzeko.
  - o Kalea
  - o Zenbakia
  - o Solairua
  - o Hizkia
  - o Posta-kodea
- LANAREN IRAUPENA

- Hasiera-data noiztik/noiz arte. Eskuz bete liteke, data uuuu/hh/ee formatua baliatuta edota egutegian data bat aukeratuta (📅 ikonoa sakatuta). Egutegian, hilabeteetan eta urteetan nabigatu egin daiteke aurrekoa eta hurrengoa geziak baliatuta, edota zerrenda zabalgarrietan nahi dugun hilabetea eta urtea aukeratuta.



- Iraupena, egunetan.

#### - IZAPIDETZEAREN EGOERA

- Azken izapidea. Lauki horrek adierazten du bilatu beharreko fasea/izapidea espediente batek igarotako azkenekoa den. Markatu ezean, adierazitako fase/izapidea unerren batean igaro duten espediente guztiak erakutsiko dira.
- Fasea. Fase guztiak biltzen dituen zerrenda zabalgarria, nahi duguna aukeratzeko.
- Izapidea. Izapide guztiak biltzen dituen zerrenda zabalgarria, nahi duguna aukeratzeko.
- Egoera. Izapide batek eduki ditzakeen egoera guztiak biltzen dituen zerrenda zabalgarria. Eremu hori azken izapidea laukitxo markatuta edukiz gero bakarrik erakutsiko da.

**Iragazi** botoiari ematean, beheko taulan egindako bilaketarekin bat datozen espediente guztiak agertuko dira. Iragazteko baliorik adierazi ezean, bilaketaren emaitza gisa espediente guztiak agertuko zaizkigu.

Espediente	Erregistro-dat	IFZ/IFK	Enpresaren izena	Lanaren L.H.	Lanaren udalerria	Lanaren hasier	Fasea	Izapidea
01/2018/00001	2018/01/24	B01167147	IMPERMEABILIZACIONES ISF	Bizkaia	Mañaria	2018/01/24	Ebazpena	Ebazpena
01/2018/00002	2018/02/05	B50688597	CIUDADANO FICTICIO ACTIVO				Ebazpena	Ebazpena
01/2018/00003	2018/02/05	B50688597	CIUDADANO FICTICIO ACTIVO	Araba/Álava	Vitoria-Gasteiz	2018/01/02	Eskaera jasotzea eta aztertzea	Osalaran txostenak jasotzea
01/2018/00004	2018/02/05	B50688597	CIUDADANO FICTICIO ACTIVO	Araba/Álava	Vitoria-Gasteiz	2018/02/14	Obra-amaieraren/obra-ibieraren	Obra-amaiera espedientearen erre
01/2018/00005	2018/02/06	72194630E	CIUDADANO FICTICIO ACTIVO				Ebazpena	Ebazpena
01/2018/00006	2018/02/08	72194630E	CIUDADANO FICTICIO ACTIVO	Araba/Álava	Amurrio	2018/02/07	Eskaera jasotzea eta aztertzea	Espediente irekitzea Nire Kudea
01/2018/00007	2018/02/09	72727272F	razón ana			2018/02/06	Zuzenketa	Zuzentzeko Errekerimendua
01/2018/00008	2018/02/14	B50688597	CIUDADANO FICTICIO ACTIVO				Eskaera jasotzea eta aztertzea	Espediente irekitzea Nire Kudea

Lehenengo orrialdea Aurrekoa 1 orrialdetik 1 Hurrengoa Azken orrialdea 10

1 - 8(e)tik 8 erakusten

Taula honetan emandako informazioa honako hau da.

- Espediente. Lurralde historikoa/urtea/espediente-zenbakia.
- Espediente erregistratutako data.
- Eskatzailearen IFK/IFZ.
- Eskatzailearen sozietate-izena.

- Lana zer lurralde historikotan egingo den.
- Lana zer udalerritan egingo den.
- Lanaren hasiera-data.
- Espedientea zer fasetan dagoen
- Espedientea zer egoeratan dagoen.

Gainerako mantentze-lan guztietan bezala, taula hori gorantz edo beherantz antola daiteke edozer zutaberen arabera; horretarako, zutabe bakoitzaren izenburuaren gainean klik egin behar da.

Horrez gain, beheko aldean hainbat botoi daude, bilaketen emaitzetan nabigatu ahal izateko.



Irudian ikusten den moduan, erdiko koadroan, taulak zenbat orri dituen ageri da. Orriz aldatzeko, zuzenean idatz dezakegu laukitxo horretan zer orritara joan nahi dugun, edota botoi hauek erabili: lehen orria, aurrekoa, hurrengoa edo azken orria.

Lehenetsita, 10 erregistro agertuko dira orri bakoitzean, baina aukera hori aldatu liteke menu zabalgarrian beste kopuru bat aukeratuta.



Espediente baten xehetasunak ikusteko, erabiltzaileak bi aukera izango ditu.

- Emaizten taulan, nahi dugun espedientearen gainean bitan sakatuko dugu.
- Edota, **Sartu izapidetzeari** botoiari emango diogu. Aukera horren bidez, espedientea izapidetzeko erlaitzean sartuko gara zuzenean. Puntu hori xehe-xehe dago jasota 4.1.3 atalean. Izapideak

Espedienteen xehetasun-pantaila horretatik, sartu garen espedientearen datu zehatzak kontsultatu eta/edo aldatu ahal izango ditugu.

Amianto-arriskua duten lan-planak  
baimentzea

Lan eta Justizia Saila



es | eu

[Launtza](#) [Harremana](#)
[Hasiera](#) | [Sarrera-erretila](#) | [Espedienteak](#) | [Mantentze-lanak](#) | [Estatistikak](#)
AB03B-03, Responsable Deleg. Alava dago: **Hasiera**
 [Saioa itxi](#)
**Esp: 01/2018/00003 Plan mota: Espezifiko**

Sarrera-erregistroaren data: 2018/02/05 Sarrera-erregistroaren zenbakia: 2018RTE00001286

IFK/IFZ: B50688597 Enpresaren izena: CIUDADANO FICTICIO Aktiboa: Aktiboa

Fasea: Eskara jasotzea eta aztertzea Izapidea: Osalanen txostenak jasotzea Egoera: Sinatu zain

[Aurrekoa](#) [Itzuli](#) [Hurrengoa](#)

## Espedientearen datuak

## Enpresaren datuak

## Izapideak

## Gorde

## Eskatzailearen datuak

Dokumentua: 999999905

Izena: CIUDADANO

1. Abizena: FICTICIO

2. Abizena: ACTIVO

Legezko Ordezkaria:

## Lanaren tokia

\* Lurralde Historikoa: Araba/Álava

\* Udalerria: Vitoria-Gasteiz

\* Kalea: Gasteiz (Etorbidea/Avenida)

\* Zenbakia: 15

Solairua: 2

Letra: B


\* PK: 01005

## Lanaren iraupena

\* Hasiera-data: 2018/01/02

\* Iraupena, egunetan: 15

Zehapen-espedientea: 123465489794351


 [Dokumentua Eranstea](#)

Espedienteari lotutako teknikaria:

Komunikazio-hizkuntza: ☒ Gastelaniaz ☐ Euskaraz

## Txostenaren aurrebista

Data:

 [Dokumentua Eranstea](#)
[Legezko abisua](#) [Pribatasuna](#)

© 2017 Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco


Pantaila horren goiko aldean espediente osoaren oinarritzko datuak agertuko dira.

- Espediente-zenbakia: probintzia/urtea/espediente-zenbakia.
- Plan mota: espezifikoa, segidakoa edo generikoa. Segidako planen kasuan, plan motarekin batera esteka bat agertuko zaigu, aurretik lotuta daukan espedientera jo ahal izateko.

**Tipo Plan: Sucesivo 01/2018/00003**

Esteka horri emanaz gero, beste leiho bat irekiko zaigu nabigatzailean, espediente espezifiko horren xehetasunekin.


- Sarrera-erregistroaren data
- Sarrera-erregistroaren zenbakia
- Enpresaren IFK/IFZ

- Enpresaren sozietate-izena
- Aktibo: enpresa aktibo dagoen adierazten du (edota baja eman dioten, inaktibo)
- Espedientea zer fasetan dagoen
- Espedientea zer egoeratan dagoen.
- Espedientearen izapidetze-egoera (izapidetzen, eginda, sinatzeke, sinatuta...)
- Inprimagailuaren ikonoa.  botoiaren bidez, espedientearen laburpen-fitxa deskargatu ahal izango dugu. Haren gainean sakatzean, mezu bat agertuko zaigu, dokumentua ireki edo gorde nahi dugun galdetzeko. Fitxak espedientearen datu guztiak bilduko ditu, eta honako tankera hau izango du.

EXPEDIENTE/EXPEDIENTE: 01/2018/00003						
<b>ERREGISTRO/REGISTRO</b>						
SARRERA/ENTRADA: 2018RTE00001286				DATA/FECHA: 05/02/2018		
<b>ESKATZAILEA/SOLICITANTE</b>						
DOKUMENTU/DOCUMENTO: 9999999905		IZENA/NOMBRE: CIUDADANO				
1. ABIZENA/APELLIDO 1: FICTICIO		2. ABIZENA/APELLIDO 2: ACTIVO				
LEGEZKO ORDEZKARIA/REPRESENTANTE LEGAL:						
<b>ENPRESA/EMPRESA</b>						
DOKUMENTU/DOCUMENTO: B50688597				RERA ZBK/NUM RERA: 01-00048		
IZENA/NOMBRE: CIUDADANO FICTICIO ACTIVO						
HELBIDEA/DIRECCION: Jundiz Nº1 1						
HERRIA-UDALERRIA/LOCALIDAD-MUNICIPIO: Vitoria-Gasteiz - Vitoria-Gasteiz						
LURRALDEA/PROVINCIA: Araba/Alava		P.K./C.P.: 01015				
<b>LANGILEAK/TRABAJADORES:</b>						
DOKUMENTU ZK/ Nº DOCUMENTO	IZENA/NOMBRE	1. ABIZENA/APELLIDO 1	2. ABIZENA/APELLIDO 2	G.S.Z./N.S.S.	FECHA LIMITE_EU/ FECHA LIMITE	FORMACIÓN EN PRL_EU/FORMACIÓN EN PRL
111111111E	CARLOS	IBARRA	LOPEZ		28/11/2018	Curso de transiemento de amianto
<b>LANAREN TOKIA/LUGAR DE TRABAJO</b>						

HELBIDEA/DIRECCION:	Eduardo Dato (Kalea Calle) Nº152B
UDALERRIA/MUNICIPIO:	Vitoria-Gasteiz
LURRALDEA/PROVINCIA:	Araba/Álava
P.K./C.P.:	01005
LANAREN IRAUPENA/DURACION DEL TRABAJO	
HASIERA-DATA/FECHA INICIO:	02/01/2018
IRAUPENA, EGUNETAN/DURACION EN DIAS:	15
EXPEDIENTE/EXPEDIENTE	
ZEHAPEN-EXPEDIENTE/EXPEDIENTE SANCIONADOR:	
EXPEDIENTEARI LOTUTAKO TEKNIKARIA/TECNICO ASOCIADO AL EXPEDIENTE:	
KOMUNIKAZIO-HIZKUNTZA/DIOMA DE COMUNICACION:	Gastelaniaz/Castellano
TXOSTENAREN AURREBISTA/VISITA PREVIA A INFORME	
DATA/FECHA:	
IZAPIDEAK/TRAMITACIONES	
IZAPIDEA/TRAMITE:	Expedientea irekitzea Nire Kudeaketak atalean / Apertura del expediente en Mis Gestiones
EGOERA/ESTADO:	Eginda / Realizado
ERREGISTRO/REGISTRO	
ZENBAKIA/NUMERO:	
DATA/FECHA:	
JAKINARAZPEN-DATA/FECHA NOTIFICACION:	
IZAPIDETZE-DATA/FECHA TRAMITACION:	

OHARRAK/OBSERVACIONES:	
IZAPIDEA/TRAMITE:	Eskaera eta espedientea hasten erregistratzea / Registro de la solicitud e inicio del expediente
EGOERA/ESTADO:	Eginda / Realizado
ERREGISTRO/REGISTRO	
ZENBAKIA/NUMERO:	
DATA/FECHA:	
JAKINARAZPEN-DATA/FECHA NOTIFICACION:	
IZAPIDETZE-DATA/FECHA TRAMITACION:	
OHARRAK/OBSERVACIONES:	
IZAPIDEA/TRAMITE:	Eskaera telematikoa jasotzea / Recepción de la solicitud telemática
EGOERA/ESTADO:	Eginda / Realizado
ERREGISTRO/REGISTRO	
ZENBAKIA/NUMERO:	2018RTE00001286
DATA/FECHA:	05/02/2018
JAKINARAZPEN-DATA/FECHA NOTIFICACION:	
IZAPIDETZE-DATA/FECHA TRAMITACION:	
OHARRAK/OBSERVACIONES:	

- Planaren ikonoa.  botoiari emanda, enpresak espedienteari gehituta azkeneko plana deskargatu ahal izango dugu.

Esp: 01/2018/00003 Plan mota: Espezifikoa    
Sarrera-erregistroaren data: 2018/02/05 Sarrera-erregistroaren zenbakia: 2018RTE00001286  
IFK/IFZ: B50688597 Enpresaren izena: CIUDADANO FICTICIO ACTIVO Akitiboa: Akitiboa  
Fasea: Eskaera jasotzea eta aztertzea Izapidea: Osalanen txostenak jasotzea Egoera: Sinatu zain

Espedientearen goiburuen azpian, hainbat botoi ageri dira. **Aurrekoa**, **Itzuli** eta **Hurrengoa**. Aurrekoa eta hurrengoa botoiak baliatuta, bilaketa-iragazkiak eman dizkigun espedienteetan barrena mugituko gara. Itzuli botoiari ematen badiogu, espedienteen iragazkira bueltatuko gara berriz.

Horrez gain, informazio horren azpian, datuak hiru erlaintzetan banatuta agertuko dira.

- Espedientearen datuak
- Enpresaren datuak
- Izapideak

#### 4.1.1 Espedientearen datuak

Espedientearen datuak
Enpresaren datuak
Izapideak

Gorde

**Eskatzailearen datuak**
Dokumentua: 999999905
Izena: CIUDADANO
1. Abizena: FICTICIO
2. Abizena: ACTIVO
Legezko Ordezkaria:

**Lanaren tokia**
Lurralde Historikoa: Araba/Álava
Udalerrria: Vitoria-Gasteiz
Kalea: Gasteiz (Etorbidea/Avenida)
Zenbakia: 15
Solairua: 2
Letra: B
PK: 01005

**Lanaren iraupena**
Hasiera-data: 2018/01/02
Iraupena, egunetan: 15

Zehapen-espedientea: 123465489794351
Dokumentua Eranstea
Espedienteari lotutako teknikaria:
Komunikazio-hizkuntza: Gastelaniaz Euskaraz

**Txostenaren aurrebista**
Data:
Dokumentua Eranstea

Erlaitz horretan, espedientearen datuak agertuko zaizkigu. Erabiltzaileak gaitutako edozer eremu aldatu ahal izango ditu, eta, gordetzeko botoiaren bidez, aldaketak sisteman erregistratuko ditu. Aldaketak gorde ostean, baieztapen-mezu bat agertuko da pantailaren goiko aldean.

Eragiketa ondo egin da.

- **ESKATZAILEAREN DATUAK**
  - o Dokumentua. Eskatzailearen IFK/IFZ.
  - o Eskatzailearen izena.
  - o Eskatzailearen lehen abizena.
  - o Eskatzailearen bigarren abizena.
  - o Legezko ordezkaria: legezko ordezkariaren izena.




- LANEN TOKIA

- Lanak zer tokitan egingo diren.
  - Lurralde historikoa. Nahitaezkoa.
  - Udalerria. Nahitaezkoa.
  - Kalea. Nahitaezkoa. Eremu hori bi modutan bete daiteke: erabiltzaileak nahi duen testu askea idatzita edota gutxienez hiru hizki idatzita. Hartara, sistemak hizki horiek dituzten kaleen izenak erakutsiko ditu, erabiltzaileak nahi duena aukeratzeko.


\* Calle:

Manuel Díaz de Arcaya (Kalea/Calle)  
 Manuel Iradier (Kalea/Calle)

- Zenbakia. Nahitaezkoa.
    - Solairua. Aukerakoa.
    - Hizkia. Aukerakoa.
    - Posta-kodea. Nahitaezkoa eta numerikoa.
  - Lanen iraupena: lanen hasiera-data eta iraupena, egunetan.
- Zehapen-espedientea.
- Eremu horretan, zehapen-espedientearen zenbakia adieraziko dugu, kontsultatzen ari garen espedienteak halakorik izango balu.
  - **Erantsi dokumentua** botoia. Edozer espediente erantsi dezakegu zehapen-espedientearen. Botoi horri ematean, leiho bat irekiko zaigu. Bertatik, dokumentua aukeratu ahal izango dugu: «Arakatu» botoiari eman, erabiltzailearen karpeten egituratik nahi dugun artxiboa aukeratu eta «Ireki» botoiari eman beharko diogu.



Artxiboa prest agertuko zaigu gure aplikaziora igotzeko. Nahikoa da **Igo** botoiari ematea, eta artxiboa sistemaren zati izatera igaroko da. Artxiboa atxiki ostean, haren izena Dokusin ageri den OID izango da.



Atxiki ostean, «Onartu» botoiari emanda, leihoa itxi egingo da eta dokumentua atxiki gisa agertuko zaigu espedientearen xehetasunetan.

Zehapen-espedientea: 123465489794351	Ezabatu dokumentua	09f42401808dd4ea
Espedienteari lotutako teknikaria: <input type="text"/>		
Komunikazio-hizkuntza: <input checked="" type="radio"/> Gastelaniaz <input type="radio"/> Euskaraz		

Irudian ikusten dugun moduan, dokumentua ezabatu liteke. Ezabatuz gero, beste bat ere atxiki liteke.

- Espedienteari lotutako teknikaria.
- Komunikazioaren hizkuntza: euskara/gaztelania. Aukera hori aldeztu aurretik enpresak eskabidean aukeratu duen moduan kargatuta agertuko da, eta ezingo da aldatu.
- Txostena egin aurreko bisita. Txostena egin aurreko bisitaren data eta ordua adieraz litezke (egiaztapen-bisitaldiak obra-hasierarekin lotuta egongo dira, horregatik ez dira hemen erakusten). Zehazpen-espedientearen bezalaxe, dokumentu bat erantsi liteke bisitan, **Erantsi dokumentua** botoiari emanda. Leiho bat irekiko da, eta haren funtzionamendua zehazpen-espedientearen kasurako azaldutako berbera izango da.

#### 4.1.2 Enpresaren datuak

Erlaitz horretan, baimen-eskabidea eskatzen zaion enpresaren datuak agertuko dira.

Espedientearen datuak
Enpresaren datuak
Izapideak

Gorde

**Enpresaren datuak**

\* Dokumentua: ☒ IFK ☐ IFZ B50688597 RERA zk.: 01-00048

\* Enpresaren izena: CIUDADANO FICTICIO ACTIVO

\* Kalea: Jundiz \* Zenbakia: 1 Solairua: 1 Letra: \* PK: 01015

\* Probintzia/LH: Araba/Álava \* Udalerria: Vitoria-Gasteiz Herria: Vitoria-Gasteiz

**Aukeratu langileak**

Gehitu Aldatu

Dokumentu zk.	Izena	1Abizena	2Abizena	Gizarte Segurantzako:	Gaitasun-data	Prestakuntza laneko arriskuen pr	Aktiboa (B/E)
11111111H	CARLOS	IBARRA	LÓPEZ		2018/11/28	Curso de tratamiento de amianto	<input checked="" type="checkbox"/>

Lehenengo orrialdea Aurrekoa 1 orrialde 1 Hurrengo Azken orrialdea 10

1 - 1(e)tik 1 erakusten

Enpresaren datu propioak ezingo dira aldatu; izan ere, aldaketa horiek amianto-arriskua duten enpresen erregistroaren aplikazioan bakarrik egin litezke. Enpresaren datu hauek agertuko dira.


- Enpresaren identifikazio-dokumentua (IFK/IFZ)
- Sozietate-izena
- Helbidea: kalea, zenbakia, solairua, hizkia eta posta-kodea
- Probintzia edo lurralde historikoa
- Herria
- Udalerria

Horrez gain, taula bat ageri da enpresak delako lan-planean bildutako langileekin. Enpresaren datuak ez bezala, langileen datuak alda litezke; era berean, posible da beste langile batzuei alta ematea edota lehendik direnak desaktibatzea.

Aurreko irudian ikusten dugun moduan, langile bakoitzarekin lotuta honako informazio hau agertuko zaigu.

- Nortasun-agiriaren zenbakia
- Izen-abizenak
- Gizarte Segurantzako zenbakia
- Gaitasun medikoaren epemuga
- Laneko arriskuak prebenitzeko prestakuntza
- Eremu aktiboa. Eremu hori markatuta egonez gero, langilea aktibo dagoela esan nahi du; bestela, berriz, langilea desaktibatu egin dela (baja eman zaiola) dagokigun planarekin lotuta.


Langile baten daturen bat aldatu nahi izanez gero, bi modu izango ditugu: langilearen gainean bi aldiz klik eginda edota behin bakarrik klik egin eta ondoren **Editatu** botoiari emanda.



Pantaila honetan, eremu guztiak aldatu litezke, identifikazio-zenbakia izan ezik (NAN, IFZ, IFK...). Erabiltzaileak datuak aldatzen dituenean eta **Gorde** botoiari ematean, mezu bat agertuko da gorde dela baieztatzeko.


✓ Elementua zuzen aldatu da. [Itxi](#)

Enpresaren datuen erlaitzetik, langile berriak ere gehitu litezke lan-planera, taulako **Gehitu** botoiari emanda. Ondoren, leiho bat agertuko da langileari alta emateko bete beharreko datuekin.



Honako datu hauek bete behar dira.

- Nortasun agiriaren mota eta zenbakia. Nahitaezkoa.
- Langilearen izena. Nahitaezkoa.
- 1. abizena. Nahitaezkoa.
- 2. abizena. Aukerakoa.
- Gizarte Segurantzako zenbakia. Nahitaezkoa.
- Gaitasun medikoaren epemuga. Nahitaezkoa. Eskuz bete liteke, data uuuu/hh/ee formatua baliatuta edota egutegian data bat aukeratuta (📅 ikonoa sakatuta). Egutegian, hilabeteetan eta urteetan nabigatu egin daiteke aurrekoa eta hurrengoa geziak baliatuta, edota zerrenda zabalgarrietan nahi dugun hilabetea eta urtea aukeratuta.



- Laneko arriskuak prebenitzeko prestakuntza. Aukerakoa. Atal horretan, langilean laneko arriskuen prebentzioarekin lotuta egindako ikastaroak, titulazioa eta abar zehaztu litezke.
- «Aktibo» eremua. Langile bati alta ematean, aktibo eremua ezin izango da aldatu: lehenetsita agertuko da.

Nahitaezko daturen bat bete ezean, sistemak mezu bat erakutsiko digu errorearen berri emanez. Datuak zuzenak baldin badira, **Gorde** botoiari ematean, baieztapen mezu bat agertuko zaigu datuak ondo gorde direla baieztatzeko.



### 4.1.3 Izapideak

Erlaitz horretatik, espediente bateko izapide guztiak kontsultatu eta egin ahal izango dira.

Lerro bat agertuko da espedientea igaro den izapide bakoitzeko.


Espedientearen datuak			Enpresaren datuak			Izapideak		
Espedientea itxia			Errekerimendua			Ikusi/ezkutatu agiri guztiak		
2018/02/13 11:02	Izapidea:	<u>Osalanen txostenak jasotzea</u>	Egoera:	Sinatu zain		0 komunikazioak:		1 Dokumentuak
2018/02/12 10:12	Izapidea:	<u>Zuzentzeko Errekerimendua</u>	Egoera:	Sinatu zain		0 komunikazioak:		1 Dokumentuak
2018/02/07 16:15	Izapidea:	<u>Zuzentzeko Errekerimendua</u>	Egoera:	Izapidetzen		0 komunikazioak:		0 Dokumentuak
2018/02/05 13:27	Izapidea:	<u>Espedientea irekitzea Nire Kudeaketak atalean</u>	Egoera:	Eginda		0 komunikazioak:		0 Dokumentuak
2018/02/05 13:27	Izapidea:	<u>Eskaera eta espedientea hastea erregistratzea</u>	Egoera:	Eginda				0 Dokumentuak
2018/02/05 13:21	Izapidea:	<u>Eskaera telematikoa jasotzea</u>	Egoera:	Eginda				2 Dokumentuak

Irudian ikusten dugun moduan, izapide bakoitzarekin lotuta honako informazio hau agertuko zaigu.

- Gezia: izapidea aplikazioz kanpotik iritsi den adieraziko digu  (adibidez, eskaera bat jasotzea edo tankerako Interneteko formulario baten bidez), edota aplikaziotik irten den  (zuzenketa-eskakizun bat bezala).
- Izapidearen eguna eta ordua.
- Izapidearen deskribapena. Deskribapen hori izapidearen xehetasuna eskuratzeko esteka bat da.
- Izapidearen egoera. Sinatzeke, oniritzia jasotzeke, oniritzia jasota, eginda...
- Izapidean sortutako komunikazioak. Komunikazioen kopurua adierazten du; haren gainean sakatuta, komunikazioen xehetasunetara joko dugu.
- Izapideei lotutako dokumentuak. Izapide horrekin lotutako dokumentuen kopurua adierazten du. Esteka horretan sakatuz gero, zerrenda bat agertuko da esandako dokumentu horien deskribapenarekin.

Hasieran, izapide bakoitzarekin lotutako dokumentuak ezkutatuta agertuko dira, eta bi aukera dira erakusteko.

